


Zurekin

# Toti Martínez de Lezearen 'Bretxa' nobela euskarara ekarri dute

Horrekin batera, Ohian Vega euskal dj-ak burututako ikuskizun musikatua aurkeztu dute



Ikuskizuna Ohian Vega euskal dj-ak burutu du. / KULTURSHAREA.EUS

**UNAI SARRIUGARTE** Asteazkena, 16 martxoa 2022, 17:10

Toti Martínez de Lezeak landutako 'Bretxa' nobela euskarara ekarri dute eta honen ikuskizun musikatua kaleratuko dute. Liburua Erein argitaletxearen eskutik argitaratu dute. Ikuskizuna, aldiz, Ohian Vega euskal dj-ak burutu du, duela 6 urte lantzen hasi zena.

Toti Martínez de Lezea idazle euskaldunak duela hamasei urte plazaratu zuen Bretxa gaztelaniazko eleberria euskarara ekarri dute oraingoan. Obra honek 1813an Donostian gertatu zen sarraskia ematen du ezagutzera eta Maritxu Altuna txokolategilea du ardatz, bere ikuspuntutik abiatuta ematen baita ezagutzera gertakari hura. Hala, Gipuzkoan gertatu zen gertakari ilun horren nondik-norakoaren harira herritarrek bizi izan zutena du erdigune nobelak.

Aipatu bezala, lan honen euskarazko bertsioaz gainera, Oihan Vegak eta Valen Moñuxek 'Bretxa' izeneko emanaldi musikala kaleratu dute. Vegak berak konposatu du musika eta Moñuxek, berriaz, ikuskizunaren zuzendari lana gauzatu du. Bertan eleberrian bezalaxe, hiru andre dira protagonista nagusiak.

Ikuskizun musikatuan Bergara eta Gipuzkoa osoko hainbat talde eta elkarte kultural ariko dira oholza gainean, orotara 150 partaide inguru, tamaina ikaragarriko ekoizpen eszenikoa baita hauxe. Bergarako Musika Eskola, Donostiako Union Artesana edota Donostia 31 Rekreazionista Elkarteak dira taula gainean ikus daitezkeen taldeetako batzuk. Egitasmoaren estreinaldia 2023ko urtarrilaren 13an gauzatuko dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian, baina urtean barrena hauxe aurkezteko beste zenbait ekitaldi eta hitzaldi antolatu ere.

**TEMAS** Toti Martínez de Lezea, Euskera, Euskal Literatura

TENDENCIAS ▾

**Comentarios** ▾

PATROCINADA

## Fotos




**La impresionante reforma de una vivienda aristocrática en Getxo**



**Las mejores imágenes del Asvel - Baskonia**







**Un viaje de 100 años**



**La primera jornada de la 75 edición de MBFWMadrid, en imágenes**

## Vídeos

### Lander Álvarez de Eulate, zuhaitzak artelan bilakatzen dituen lorezaina



## EL CORREO

© DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.  
C/ Gran Vía 45, 3ª planta, 48011 Bilbao



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

▾